



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentua
Departamento para las Relaciones Sociales e Institucionales

Kirolarte
KIROLETAN
KALITATEA

PROGRAMA PARA LA
MEJORA DE LA
GESTION DEPORTIVA

OHAR TEKNIKOA:

**UMEAK ETA KIROLA:
ARRISKU ETA GAIXOTASUN
KRONIKORAKO BIDE ITSUA.**

UMEAK ETA KIROLA

ARRISKU ETA GAIXOTASUN
KRONIKORAKO BIDE ITSUA

Revista Española de Educación Física y Deporte

Vol V. Nº3 julio 1998, 3er trimestre

UMEAK ETA KIROLA

ARRISKU ETA GAIXOTASUN KRONIKORAKO BIDE ITSUA

Azkenaldi honetan Espainiako umeen kirol jarduerari buruz komunikabideetan agertutako informazioak direla eta -hemen ABC egunkarikoak bakarrik jasotzen dugu- Manuel Vizuete Carrizosa doktore irakasleak, Soin Hezkuntzako Europako Batzordekideak, auzi honen inguruan ondorengo hausnarketak egiten ditu.

Bapatean alarma guztiak joka hasi dira, Kantabrian egindako ikerketa batek jakinarazi du gizakiaren garapen anatomikoa, fisiologikoa eta psikomotorea osatu aurretik lehiaketa mailan egiten den kirola kaltegarria dela. Ikerketari inolako baliorik kendu gabe eta gizartean kirolarekiko dagoen gehiegizko grina horren erdian berri hori argitaratzeak duen meritua aitortuz, esan beharra dago kontu hau ez dela oraingoa eta mende honen hasieratik jarduera fisikoaren teorikoek ondorengo printzipioa defendatu izan dutela “giza gaitasunen erabateko heldutasunera iritsi bitartean jarduera fisiko handi eta lehiatsurik ez egitea”.

Bertako baloreak sustatu eta ezagutarazteko irrikak, kirol garaipenetan islatuta, indar handia eman die etorkizun handiko kirolariak lehenbailehen igartzeko teoriari, gaur egun auzitan jartzen dena, edota are zabalduagoa dagoen beste bati ,hots, lehiaketetako domina eskasia eta estatuak duen kirolari ospetsuen premia konpontzeko eliteko kirola umetatik sustatu behar dela.

Espainiako umeek lehen mailako futbolari batek egiten duen ariketa fisikoaren bi halako egiten dute.

Santander. Ep

Espainiako umeek lehen mailako futbolari batek egiten duen ariketa fisikoko orduen bi halako baino gehiago egiten dute, hala jakinarazi zuen atzo Jordi Ballester doktoreak, Bartzelonako Hospital del Mar eritetxeko Kirurgia Ortopediko eta Traumatologiako zerbitzaburuak.

Datu honetaz baliatu ziren Ballester doktorea eta egun hauetan Santanderren egiten ari den Kirurgia Ortopediko eta Traumatologiako Espainiako Elkartearen Batzarrean parte hartzen duten beste adituak salatzeke gehiegizko kirol eta entrenamendu orduak, askotan prestatu gabeko pertsonak gainbegiratu gabe, umeengan eragindako lesioak ugaritu egin direla.

“Askotan entrenatzaileak olinpiadetako kirolari ospetsuak bihurtu nahi ditu bere ikasleak eta neurritz gaineko ariketak eginarazten dizkie; gainera umeek helduek baino maizago min hartzen dute ez baitute arriskurik ikusten” , Jordi Ballester doktoreak adierazi zuenez.

Doktoreak azaldu zuen umeak hazten ari diren pertsonak direnez eta, beraz, beren eskeletoa eta hezurak helduenak baino ahulagoak direnez, errazago hausten direla.

Hospital del Mar eritetxeko Kirurgia Traumatologikoko buruak ondorengo ohartarazi zuen: “Adin hauetan funtsezkoa da kartilagoetan asaldurarik ez izatea. Horrenbestez, behin eta berriz gertatzen den traumatismo batek, heldu batengan garrantz handirik ez duenak, ondorio larriak izan ditzake umeengan, esaterako, gorputzadarren deformazioa, hanken luzera ezberdina edota gogortasuna”.

ABC egunkarian argitaratutako testua.

Nolanahi ere, mundu osoan azken urte hauetan soin hezkuntzari eta umeen jarduera fisikoari buruz egindako ikerketek agerian jarri dituzte hainbat gai harrigarri: a) Ariketa fisikoaren eraginak ez dira berdinak umeengan eta helduengan, b) Ariketa fisikoa onuragarria da zenbait garaitan, baina kaltegarria umea hazten ari deneko beste batzuetan, batez ere ohiko gaixotasunei aurre egiteko defentsak urritzeari edota inmuno eskasia izateari dagokionez eta umearen garapen fisikoari berari dagokionez, c) Umeen jarduera fisikoak norbaiten zuzendaritza, ardura eta kontrol tekniko zorrotza eskatzen du lesioak edo gaixotasun kronikoak eragin ez ditzan, d) Ezin daiteke frogatu eskola adineko lehiaketa mailako kirol jardueraren eta eliteko kirolaren artean korrelaziorik dagoenik.

Edozein kirol jarduerak bere baitan duen baloreen heziketari dagokionez, eta benetan hala izango balitz, ume garaiko lehiaketa izaerako jarduerak izan duten gorakada kontuan hartuz kirol munduko biolentziak eta hooliganismoak atzera egin behar zuten, baina ez da horrela izan, neurtezinak diren ondorioak izan ditzakeen eta handituz doan fenomeno baten aurrean baikaude.

Kirola egitea, itxuraz bederen, erraza denez eta gizarte eragileek gai honen inguruan interes gutxi erakutsi dutenez, eta nola ez, kirol munduaren inguruan biltzen diren interes ugariak, giro nahasia mantendu arazi dute eta asko dira horretatik probetxua ateratzeko prest daudenak. Aditua ez den batek matematika, hizkuntza edo historia irakasteko gai ez dela aitortzeko lotsarik izango ez lukeen bezala, asko dira, adituak ez izan arren ere, jarduerak antolatu, umeen talde bat zuzendu eta ariketa eta prestakuntza fisikoari buruzko aholkuak emateko inolako eragozpenik izango ez luketenak.

Halaber, gurasoek, beren seme-alaben osasuna petrikilo edota sasimedikuen esku utziko ez luketenez, pediatria edo mediku espezialisten esku baizik, ez dute inolako arazorik beren seme-alabak “afizionatu” baten, kasurik hoberenean ere, helduei zuzendutako kirol teknikari buruzko prestakuntza duen baten eskuetan uzteko.

Segurtasun, hezkuntza eta osasunari dagokionez oso kezkarria da eskola orduz kanpo umeek egiten duten ariketa fisikoaren gainean dagoen kontrol eza. Ez da logikoa ez eta koherentea ere, soinketako kurrikulumaren diseinuan jasota dagoenez, eskola orduetan umei trebetasun fisikoak irakatsi, beren egoera fisikoa hobetu eta jarduera fisikoa eta solasa sustatzeko diplomatu edo lizentziatu titulazioa beharrezkoa izatea eta eskolako txirrinak jotzen duenetik aurrera edozein ziurtagiri edo entrenatzaile agiria duen inork, eta batzuetan ezta hori ere, jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez horrenbesteko eragina izatea etorkizuneko belaunaldien heziketan eta osasunean, biak ere oso gai garrantzitsuak.

Soinketako irakasleak heziketarako kirola egiteko edota ohitura osasuntsuak eta higienikoak sorrarazteko egiten duen ahaleginak ez du ezertarako balio, eskola ordua amaitu eta handik bost minutura ustezko entrenatzaile batek hezkuntza prozesu horretan parte hartzen badu, aldatuz, galaraziz eta, askotan, hondatuz. Ez dago gehiago luzatzerik, jarduera horiek arautuko dituen erregelamendua behar beharrezkoa da: zoritxarrez, gorputz heziketari dagokionean zuzendaritza tekniko txarra edo tratamendu pedagogiko desegokia izateak ekartzen dituen ondorioak zenbait urteren buruan

agertzen eta somatzen dira, eta orduan berandu izaten da eta, gehienetan, ondorio horiek atzeraezinak izaten dira.

Erakundeek umeen heziketa eta osasunaz arduratzen diren profesionalei prestakuntza akademikoa eta humanistikoa eskatu behar diete, baita eskola orduz kanpo ere. Ez da onargarria gure ordenamendu juridikoak irakaskuntzan jarduteko eskatzen duen prestakuntza akademiko eta pedagogikoa ez duten pertsonen hezkuntza prozesuan parte hartzea eta hura oztopatzea “irakasten ari direlakoan”?, batez ere derrigorrezko hezkuntzako soinketa eta kirolaren kasuan bezala gaixotasun arriskuak handiak direnean eta baloreen heziketa jokoan dagoenean. Ezin da gehiago itxaron, derrigorrezko hezkuntzako adinetan edozein jardura fisiko zuzentzeko, eskola orduetan nahiz horietatik kanpo, beharrezkoa den koalifikazio akademiko eta pedagogikoa edukitzea ezinbesteko baldintza izan behar du.

Legearen ikuspegitik premiazkoa eta beharrezkoa da jardura fisikoa eta kirol alorrekoa arautzea. Erakundeek ahalik eta azkarren eta beren eskumenen arabera alor profesional horiek finkatu behar ditu, beharrezkoa den koalifikaziorik ez duten pertsonak eginkizun horietan jardun ez daitezela. Gure seme-alabentzat prestakuntza akademiko eta humanistikoa duten soinketa eta kiroleko profesionalak nahi ditugu bai eskola orduetan baita eskola orduetatik kanpo ere, umeen bizitza kalitatea eta gu guztion etorkizuna horren baitan baitago.

Manuel Vizuete Carrizosa doktore irakaslea.

Soinketako Europako Batzordeko kidea